


Euskal AEko I+Gko gastua %20 handitu zen 2007. urtean

BPGrekiko gastu horrekin lehengo urteko %1,47tik 2007ko %1,65era pasatzen gara, horrela I+Gn tarteko ahalegina egiten duten herrialdeen artean sartzen garelarik

2007. urtean, Euskal AEn guztira 1.090 milioi euro inbertitu ziren Ikerketa Zientifiko eta Garapen Teknologikoko (I+G) jardueretan, aurreko urtean baino %20 gehiago, EUSTATEk landutako datuen arabera. Gastu arruntak %14 hazi ziren, baina, batez ere kapital-gastuak (inbertsioa), aurreko urtearen aldean %57 hazi direnak, izan dira I+Gko hazkunde nabarmenari lagundu diotenak, 135 milioi eurotik 2007ko 212ra pasa direlarik.

Euskal AEko BPGrekiko, 2007an I+Gko gastua %1,65 izan zen, aurreko urtean baino hemezortzi ehunen gehiago, azken urteetan adierazle honek izandako egonkortasuna hautsirik. Horrela, 2006 Europako datu eskuragarriei erreparatu, txikitu egin da 2007an 27-Europar Batasuneko batez bestekoarekiko (%1,84) tartea; azken hau egonkortu egin da azken urteetan. Euskal AEko gastu hori 2006ko Espainiako batez bestekoaren (%1,20) gainetik dago.

1. grafikoa: I+Gko barne-gastua, BPGrekiko (%).



Iturria: Euskal AE: EUSTAT. Espainia- Europar Batasuna: INE eta EUROSTAT

Egiaztatu egiten da erlazio positiboa dagoela biztanleko BPGren eta I+Gra bideratutako BPGren ehunekoen artean. Herrialde aberatsenak egiten dute I+Gko inbertsiorik handiena, hau da, euren BPGren %2,5 gainditzen dutenak: Suedia, Finlandia, Japonia, Suitza, Islandia, AEB, Alemania eta Austria. Tarteko ahalegina (BPGko %1,5-%2,5) egiten dutenen artean, Euskal AEz gain: Danimarka, Frantzia, Belgika, Erresuma Batua, Herbehereak, Eslovenia, Txekiar Errepublika eta Norvegia. Inbertsiorik baxuenak Luxenburgon (%1,47) Irlandan (%1,35), Espainian (%1,20), Estonian (%1,14), Italian (%1,09), Hungarian (%1,00), Kroazian (%0,87), Portugalen (%0,83), Grezian (%0,57) eta Polonian (%0,56) egiten dira.

Euskal AEn egindako I+Gko gastuaren %81,3 enpresa-sektorean egikaritu zen

Egikaritze-sektoreei dagokienez, enpresek I+Gko gastuaren %81,3 egin zuten; %15,2 unibertsitate-ikerketara bideratu zen, eta gainerako %3,5 Administrazioaren mendeko zenbait organismo publikok egikaritu zuten.

Beraz, enpresen sektoreak egiten du, Euskal AEn, konparatiboki, ikerketa ahaleginik handiena. Alde handia dago estatuko emaitzekiko: enpresek I+Gko gastuaren %55,7 egikaritu zuten, goi-mailako irakaskuntzak %27,7 eta herri-administrazioak gainerako %16,6.

Industri enpresetan zentratuz, nabarmentzekoak dira ondoko jarduera-adarrak: garraio materiala, metalezko artikulua eta makineria, hiruren artean enpresen sektoreko barne gastuaren %18 egikaritu zutelarik. Zerbitzu-enpresen aldetik, I+Gko zerbitzuetakoak dira baliabiderik gehien bideratzen dituztenak, eta guztien artean enpresen barne gastuaren %41era iritsi ziren.

Finantzaketaren ikuspegitik, finantzaketa pribatuak, enpresen bidez, 643 milioi euro bideratu zituen ikerketara, guztizkoaren %59; finantzaketa pribatua %38ra iritsi zen, eta funtsen %3 atzerrian atzeman ziren. Euskal AE finantzaketa pribatu handieneko herrialdeen artean kokatzen da oraindik ere, Europako batezbestekoaren gainetik.

1. taula: I+Gko adierazleak

	Euskal AE		Espainia	Europar Batasuna
	2006	2007	2006	2006
I+Gko gastuak, finantzaketaren arabera				
Enpresak	61,2	58,9	47,1	54,6
Administrazioa	35,4	37,6	42,4	34,2
Bestelako iturriak	0,3	0,3	4,6	2,3
Atzerria	3,1	3,2	5,9	8,9
I+Gko gastuak, egikaritze-sektorearen arabera (%)				
Enpresak eta irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuak	79,5	81,3	55,7	64,6
Administrazioa	3,3	3,5	16,6	13,5
Goi-mailako ikasketak	17,2	15,2	27,7	21,9
I+Gra dedikatutako DOBko (*) langileak				
Langileak guztira	13.065	14.435	188.978	2.167.381
Ikertzaileak	8.145	9.220	115.798	1.300.990

(*) DOE: dedikazio osoko baliokidetzak

Iturria: Euskal AE: EUSTAT. Espainia: INE- Europar Batasuna: EUROSTAT

Euskal AEn dedikazio osoko baliokidetzan I+Gn lanean aritu ziren langileak 14.435 izan ziren, 2006an baino %10,5 gehiago. Horietatik %64, hau da, 9.220, ikertzaileak dira. Euskal AEko I+Gk biztanleria landunaren milako 14,2 hartu zuen (Estatuan milako 9,3 2006an) eta ikertzaileak aldiz, milako 9,1 izan ziren (Estatuan milako 5,7 2006an).

Emakumeen presentzia hirukoiztu egin da azken hamarkadan

I+Gko jardueretan emakumeek duten parte hartzearen ehunekorik handienak herri-administrazioetan eta goi-mailako irakaskuntzan gertatzen dira, %49 eta %45 baitira, hurrenez hurren. Enpresetan berriz, %29 dira emakumeak.

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel:+34-945-01 75 00 Faxe:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Susana Rabuñal Mol

+Tlf:+34-945-01 75 48 Faxe:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp